

UDAL ZUZENDARIEN INGURUKO INTERPELAZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, udal zuzendarien inguruko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Donostiako alkate Eneko Goia Laso jaunari, hari buruzko azalpenak Udalbatzan eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 13an Eneko Goia Donostiako alkate izendatua izan zen, eta 27an EAJ eta PSEren arteko koalizio gobernua lehen Gobernu Batzordea egin zuen. Gaur gaurkoz, Udal Gobernuak ez ditu argitu zuzendariak hautatzeko irizpideak, Kulturen izan ezik. Beraz, ez dakigu eredu edo bitxikeria izan den. Legegintzaldia aurrera doa eta, gai garrantzitsu honetan, Udal Gobernuak zer politika izango duen jakiteko, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zergatik ezarri du Udal Gobernuak Kulturen abian jarritako prozedura eredu hori? Salbuespena izango bada, zer dela-eta?
- Zer dela eta egingo ditu Udal Gobernuak aldaketak zuzendaritzetan? Zein arlotan? Zergatik?

Donostian 2015eko uztailaren 10ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia